*Bigarrena.–* Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko urriaren 18an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de octubre de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

## 5295

284/2005 DEKRETUA, urriaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

2005–2008 legegintzaldi honetarako Jaurlaritzaren programaren arabera, hazkunde iraunkorreko eredu ekonomikoa garatzen jarraitzeari eman behar zaio lehentasuna, horri esker aurrera egin ahal izango baita hainbat gaitan –hala nola lehiakortasunean, produktibitatean, elkartasunean eta lurralde arteko orekan–, garapen teknologikoari eta gizarte-ongizateari dagokionez Europarekin elkarganatzea lortzeko. Berritasun gisa, azpimarratu beharrekoa da, turismo-sektorea garatzeko sustapenaren barruan, Turismoaren Euskal Agentzia sortu izana, Euskadi nazioarteko turismo-erreferentzia gisa bultzatzeko eta gure ekonomia dibertsifikatzen laguntzeko.

Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren bidez, Administrazioaren sailen egitura eta haietako bakoitzaren eskumenak berrantolatu dira, Jaurlaritzaren programa osatzen duten programa-konpromisoak ahalik eta eraginkortasun handienarekin betetzearren.

Orientazio horretatik abiatuta, antolamendu-egitura berri bat zehaztu behar da, enpresa-lehiakortasuneko eta gizarte-berrikuntzako eredu bat eraginkortasunez kudeatzeko. Honako ardatz hauek izango ditu eredu horrek: enpresetan eta gizartean berrikuntza bultzatzea, gure erakundeetan eta taldeetan dimentsio egokia lortzea maila globalean lehiatzeko, eta balio berriak eta pertsona prestatuak garatzea bigarren eraldaketa sozioekonomiko bati behar bezala ekiteko.

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

## 5295

DECRETO 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

El programa de Gobierno para la presente Legislatura 2005-2008 incluye en la formulación de sus grandes líneas inspiradoras el continuar con el desarrollo de un modelo económico de crecimiento sostenible que nos permita seguir avanzando en términos de competitividad, productividad, solidaridad y equilibrio territorial, para conseguir la convergencia con Europa en desarrollo tecnológico y bienestar social. Como novedad cabe destacar, dentro de la promoción para el desarrollo del sector turístico, la creación de la agencia vasca de turismo, para conseguir impulsar el destino Euskadi como referente turístico internacional contribuyendo a la diversificación nuestra economía.

El Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, procede a reordenar la estructura departamental de la Administración y la asignación competencial entre Departamentos para llevar a cabo con la máxima eficacia el conjunto de compromisos programáticos que constituyen el citado Programa de Gobierno.

Con dicha orientación se hace necesario perfilar una nueva estructura organizativa que posibilite una gestión eficaz de un modelo de competitividad empresarial e innovación social, cuyos ejes son: potenciar la innovación en las empresas y en la sociedad, alcanzar una dimensión adecuada en nuestras organizaciones y grupos para competir a nivel global y desarrollar nuevos valores y personas preparadas para abordar con garantías de éxito una segunda transformación socioeconómica.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko urriaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ANTOLAMENDU OROKORRA

*1. artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun–arloak finkatzen dituen ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren 10. artikuluak esleitutako arloetan beteko ditu bere funtzioak, Dekretu honetan aurreikusitakoari jarraiki.

*2. artikulua.–* Organoak.

Aurreko artikuluan adierazitako arloei dagozkien funtzioak betetzeko, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak honako egitura hau hartzen du:

a) Organo nagusiak:

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.
1.1.– Kabinetearen Zuzendaritza.

2.– Berrikuntza eta Energia Sailburuordetza.
2.1.– Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza.
2.2.– Energia eta Meategien Zuzendaritza.
2.3.– Plangintza eta Estrategia Zuzendaritza.
2.4.– Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

3.– Teknologiako eta Industria Garapeneko Sailburuordetza.
3.1.– Teknologia Zuzendaritza.
3.2.– Nazioartekotze Zuzendaritza.
3.3.– Industria Garatzeko Zuzendaritza.
3.4.– Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritza.

4.– Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Sailburuordetza.
4.1.– Merkataritza Zuzendaritza.
4.2.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza.

5.– Turismo Sailburuordetza.
5.1.– Turismoa Sustatzeko eta Merkaturatzeko Zuzendaritza.
5.2.– Turismo Administrazioko eta Lehiakortasuneko Zuzendaritza.

b) Lurralde organoak:

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 11 de octubre 2005,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
ORGANIZACIÓN GENERAL

*Artículo 1.–* El Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo ejercerá las funciones en las materias cuya competencia le atribuye el artículo 10 del Decreto 8/2005, de 27 de junio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, de conformidad con lo previsto en el presente Decreto.

*Artículo 2.–* Órganos.

Para el ejercicio de las funciones relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Industria, Comercio y Turismo se estructura en los siguientes órganos:

a) Órganos centrales:

1.– La Consejera de Industria, Comercio y Turismo.
1.1.– Dirección de Gabinete.

2.– Viceconsejería de Innovación y Energía.
2.1.– Dirección de Innovación y Sociedad de la Información.
2.2.– Dirección de Energía y Minas.
2.3.– Dirección de Planificación y Estrategia.
2.4.– Dirección de Servicios Generales.

3.– Viceconsejería de Tecnología y Desarrollo Industrial.
3.1.– Dirección de Tecnología.
3.2.– Dirección de Internacionalización.
3.3.– Dirección de Desarrollo Industrial.
3.4.– Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras.

4.– Viceconsejería de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.
4.1.– Dirección de Comercio.
4.2.– Dirección de Consumo y Seguridad Industrial.

5.– Viceconsejería de Turismo.
5.1.– Dirección de Promoción y Comercialización Turística.
5.2.– Dirección de Administración Turística y Competitividad.

b) Órganos periféricos:

1.– Lurralde Historiko bakoitzeko Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde-bulegoak.

c) Organo kolegiatuak:

1.– Euskadiko Nazioartekotze Batzordea.

2.– Euskadiko Prezioen Batzordea.

3.– Saltoki Handien Batzordea.

4.– Merkataritzako Aholku Batzordea.

5.– Kontsumoko Aholku Batzordea.

6.– Euskadiko Kontsumo Batzorde Koordinatzailea.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Batzordea.

8.– Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.

9.– Turismoko Aholku Batzordea.

d) Ondoren zerrendatzen diren Erakunde Administrazioko erakundeak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitzen zaizkio:

1.– Energiaren Euskal Erakundea (EEE/EVE) izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa.

2.– Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (ISEB/SPRI) izeneko sozietate publikoa.

*3. artikulua.*– Zuzendaritza Kontseilua.

Sailaren Zuzendaritza Kontseiluak laguntza emango dio sailburuari Sailaren politikaren ikuskapena eta jarraipena egiten, haren jardueren plangintza orokorra prestatzen, eta agindutako beste gai guztietan.

Sailburuaren goragoko zuzendaritzapean, Saileko sailburuordeek eta Kabineteko zuzendariak osatuko dute Zuzendaritza Kontseilua.

Era berean, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak beste kide batzuk ere izenda ditzake Zuzendaritza Kontseiluan aritzeko.

Sailburuak izendatzen duenak jardungo du Zuzendaritza Kontseiluko idazkari-lanetan.

## II. KAPITULUA
## SAILBURUA

*4. artikulua.*– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak eta, horiez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen di-

1.– Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada uno de los Territorios Históricos.

c) Órganos colegiados:

1.– Comisión de Internacionalización del País Vasco.

2.– Comisión de Precios de Euskadi.

3.– Comisión de Grandes Establecimientos Comerciales.

4.– Comisión Consultiva de Comercio.

5.– Comisión Consultiva de Consumo.

6.– Comisión Coordinadora de Consumo de Euskadi.

7.– Junta Arbitral de Consumo de Euskadi.

8.– Consejo Vasco de Seguridad Industrial.

9.– Consejo Consultivo de Turismo.

d) Quedan adscritos al Departamento de Industria, Comercio y Turismo las entidades de la Administración Institucional que a continuación se relacionan:

1.– El Ente Público de Derecho Privado «Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía» (EEE/EVE).

2.– La Sociedad Pública «Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial» (ISEB/SPRI).

*Artículo 3.*– El Consejo de Dirección.

El Consejo de Dirección del Departamento asistirá a su titular en la supervisión y seguimiento de la política del Departamento, en la planificación general de sus actividades y en cuantos asuntos le sean encomendados.

Bajo la superior dirección del titular del Departamento, el Consejo de Dirección estará integrado por los Viceconsejeros o las Viceconsejeras del Departamento y el Director o Directora del Gabinete.

Asimismo podrán participar en el Consejo de Dirección otras personas que determine, en todo caso, la Consejera de Industria, Comercio y Turismo.

Actuará como Secretario o Secretaria del Consejo quien a tal efecto sea designado por la Consejera del Departamento.

## CAPÍTULO II
## DE LA CONSEJERA

*Artículo 4.*– La Consejera de Industria, Comercio y Turismo.

1.– Corresponde a la Consejera de Industria, Comercio y Turismo el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de

tuen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren indarrez Sailari dagozkion egitekoen eta jardun-arloen eremuan indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion eskumen guztiak betetzea, betiere Dekretu honetan aurreikusitakoari jarraiki.

2.– Sailaren organo gorena denez gero, Sailaren organo eta jarduera guztiak zuzendu, koordinatu eta kontrolatuko ditu.

3.– Sailburuari dagokio, halaber, informazioaren eta jakintzaren gizartea sustatzeko eta aurrera ateratzeko goi-zuzendaritza, lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

4.– Sailburuak merkataritza-arloan zigortzeko ahalmena erabiliko du, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 43. artikuluan aurreikusitako eran.

5.– Sailburuari dagokio, orobat, izendapen askeko lanpostuak betetzea, deialdi publikoa egin eta gero; berak izendatuko ditu, era berean, aldi baterako langileak.

6.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren mende dago, zuzenean eta hierarkikoki, Sailburuaren Kabinetearen Zuzendaritza.

***5. artikulua.***– Kabinetearen Zuzendaritza.

Kabinetearen Zuzendaritzak, 7. artikuluan ezarritako funtzio orokorrez gain, honako funtzio hauek izango ditu:

a) Sailburuari Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari esleitutako eskumenak betetzeko lanetan laguntzea.

b) Sailaren komunikazio-politika definitu, zuzendu eta koordinatzea eta, ildo horretan, Sailaren eta gizarte-komunikabideetako profesionalen arteko solaskide izatea, Sailari lotutako jardueren, erabakien eta politiken hedapena eta zabalkundea errazteko.

c) Sailburuaren lan-programan (Agenda) zuzeneko laguntza ematea eta programa horren plangintza eta jarraipena egitea, erakunde-ordezkaritzako egintzak bereziki kontuan hartuta.

d) Sailburuaren jarduera publikoak/kanpokoak antolatzea, eta sailburuak Sailaren ordezkari goren gisa parte hartzen duen eta dimentsio publikoa duten ekitaldietan protokolo-arduradunaren funtzioa betetzea.

e) Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren organo eskudunaren bitartez, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren, eta Eusko Legebiltzarraren eta beste erakunde batzuen arteko harremanak koordinatzea eta zaintzea.

actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 8/2005, de 27 de junio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, de conformidad con lo previsto en el presente Decreto.

2.– Como órgano superior del Departamento ejercerá la dirección, coordinación y control de todos los órganos y actividades del mismo.

3.– Corresponde, igualmente, a la Consejera la alta dirección del desarrollo y promoción de la Sociedad de la Información y del Conocimiento en los términos previstos en el Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari.

4.– La Consejera ejercitará la potestad sancionadora en materia de Comercio en los términos previstos en el artículo 43 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de Actividad Comercial.

5.– Corresponde asimismo a la Consejera la provisión de los puestos de libre designación, previa convocatoria pública; así como la designación del personal eventual.

6.– De la Consejera de Industria, Comercio y Turismo depende directa y jerárquicamente la Dirección del Gabinete del Consejero.

***Artículo 5.***– Dirección del Gabinete.

La Dirección del Gabinete realizará, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones:

a) Asistir a la Consejera en el ejercicio de las competencias atribuidas al Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

b) Definir, dirigir y coordinar la política de comunicación del Departamento y, en este sentido, erigirse en el interlocutor del Departamento con los profesionales de los medios de comunicación social para facilitar la difusión y divulgación de las actividades, decisiones y políticas vinculadas al Departamento.

c) Apoyo directo, planificación y seguimiento del programa de trabajo (Agenda) de la Consejera, con especial atención a los actos de representación institucional.

d) Organización de las actividades públicas/externas de la Consejera, así como la función de responsable de protocolo en aquellos eventos en los que participa la Consejera en su calidad de máxima represente del Departamento, y que tengan una dimensión pública.

e) Coordinar y atender, a través del órgano competente de la Vicepresidencia del Gobierno, las relaciones del Departamento de Industria, Comercio y Turismo con el Parlamento Vasco y otras instituciones.

III. KAPITULUA
SAILAREN SAILBURUORDETZAK ETA ZUZENDARITZAK

*6. artikulua.*– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuordeak.

Sailburuordetza bakoitzaren arduraduna sailburuaren mendeko sailburuorde bat izango da. Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuordeen egitekoak honako hauek dira:

a) Sailburuordetzaren, haren zuzendaritzen eta haren mendeko gainerako organoen eta administrazio-unitateen jarduerak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta ikuskatzea.

b) Jardun-politikak lantzea eta sailburuari proposatzea.

c) Sailburuordetzaren mendeko zerbitzuei zuzendutako zirkularrak, aginduak eta xedapenak ematea, behar bezala jardun dezaten.

d) Esleitutako funtzioen eremuan, sailburuari laguntza teknikoa ematea.

e) Ezarritako jardun-politikaren araberako xedapen-proiektuak proposatzea.

f) Sailburuordetzaren jarduerak programatzea.

g) Sailburuari aldiro ematea esleituta dituzten zerbitzuen bilakaeraren, kostuaren eta errendimenduaren berri. Nolanahi ere, kontuan izango dira arlo honetan Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagozkion ahalmenak.

h) Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritza-zentroen eta erakundeen jarduteko modua ikuskatu eta kontrolatzea.

i) Enpresekin, erakundeekin eta korporazioekin akordioak edo hitzarmenak izenpetzea, kasuan kasuko eskumena beste organo bati esleitu ez bazaio.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan dagokion jardun-arloan izenez esleitutako dirulaguntzak ematea.

k) Helburuen eta jardun-planen kudeaketa ikuskatzea.

l) Sailaren eskumeneko arloetan, Sailaren eta gainerako sailen zein eremu material horri lotuta eratutako sail arteko koordinazio-organoen arteko harremanetarako organoa izatea.

CAPÍTULO III
DE LAS VICECONSEJERÍAS Y DIRECCIONES DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 6.*– Los Viceconsejeros o Viceconsejeras del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Al frente de cada una de las Viceconsejerías habrá un Viceconsejero o Viceconsejera bajo la dependencia de la Consejera del Departamento. Corresponde a los Viceconsejeros o a las Viceconsejeras del Departamento de Industria, Comercio y Turismo:

a) Dirigir, coordinar, impulsar y supervisar las actuaciones de la Viceconsejería, así como de las Direcciones y demás órganos y unidades administrativas dependientes de la misma.

b) Elaborar y proponer a la Consejera políticas de actuación.

c) Dictar las circulares, instrucciones y disposiciones necesarias dirigidas a los servicios dependientes de la Viceconsejería, en orden a su correcto funcionamiento.

d) Prestar asistencia técnica a la Consejera en el ámbito de las funciones que tengan encomendadas.

e) Efectuar la propuesta de proyectos de disposiciones de conformidad con la política de actuación establecida.

f) Llevar a cabo la programación de las actividades de la Viceconsejería.

g) Dar cuenta periódicamente al titular del Departamento de la evolución, coste y rendimiento de los servicios que tengan encomendados, sin perjuicio de las facultades que en esta materia corresponden al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

h) Supervisar y controlar el funcionamiento de los centros directivos y organismos dependientes de la Viceconsejería.

i) Firmar acuerdos o convenios con empresas, entidades y corporaciones cuando en el ejercicio de sus respectivas competencias la misma no sea atribuida a otro órgano.

j) Conceder las subvenciones asignadas nominativamente en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en sus respectivas áreas de actuación.

k) Supervisar la gestión de los planes de actuación y objetivos.

l) Ser el órgano de relación del Departamento, en las áreas de su competencia, con el resto de los Departamentos; así como con los órganos de coordinación interdepartamental constituidas en relación a dicho ámbito material.

m) Sailburuordetzetako zuzendariek eta lurralde-organoek hartutako ebazpenen aurka jarritako errekurtsoen berri izatea eta errekurtso horiek ebaztea, sailburuordea mailaz gorago baldin badago.

n) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien edo Jaurlaritzako sailburuordeei oro har esleitu ondoren komunak diren gainerako funtzioak.

o) Beren eskumenaren eremuan zigor-ahalmena erabiltzea eta indarrean dagoen legeriari jarraiki oso larritzat hartutako zigorrak ezartzea, merkataritza-arloan zigor mota horretarako sailburuari edo, hala badagokio, Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokion eskumena izan ezik, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

p) Beren jardun-arloan barne hartutako espedienteen ondoriozko gastua baimentzea, baimena beste organo baten eskumena denean izan ezik.

7. ***artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren zuzendaritzak.

Sailaren zuzendaritza bakoitzaren arduraduna hierarkikoki sailburuordearen mende egongo den zuzendari bat izango da. Oro har, honako hauek dira zuzendariaren funtzioak:

a) Zuzendaritzaren barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, organo eskudunek ezarritako arauei jarraiki.

b) Zuzendaritzaren jarduerak programatu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea, dagokion sailburuordeak emandako aginduei jarraiki.

c) Beren eskumeneko arloetan, gainetik dituzten organoei jarduteko planak edo programak proposatzea.

d) Dekretu honen bidez esleitzen zaizkien funtzioak betetzeko administrazio-egintzak ematea.

e) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien edo Jaurlaritzako zuzendariei oro har esleitu ondoren komunak diren gainerako funtzioak.

f) Beren eskumenaren eremuan zigor-ahalmena erabiltzea eta indarrean dagoen legeriari jarraiki arintzat eta larritzat hartutako zigorrak ezartzea.

m) Conocer y resolver los recursos interpuestos contra las resoluciones adoptadas por los Directores o las Directoras de las Viceconsejerías y por los órganos periféricos en el supuesto de que el Viceconsejero o la Viceconsejera tenga el carácter de superior jerárquico.

n) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a los Viceconsejeros o Viceconsejeros del Gobierno.

o) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia con la imposición de sanciones tipificadas como muy graves de acuerdo con la legislación vigente, salvo la competencia que corresponde a la Consejera en materia de Comercio para este tipo de sanciones, o, en su caso, al Consejo de Gobierno, conforme a lo previsto en el artículo 43 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial.

p) Autorizar el gasto derivado de los expedientes incluidos en su área de actuación, salvo que dicha autorización sea competencia de otro órgano.

***Artículo*** 7.– Las Direcciones del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Al frente de cada una de las Direcciones del Departamento habrá un Director o Directora que dependerá jerárquicamente del Viceconsejero o Viceconsejera correspondiente. Con carácter general son sus funciones:

a) Organizar los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección, de acuerdo con las normas establecidas por los órganos competentes.

b) Programar, impulsar, dirigir, coordinar y controlar las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones recibidas del Viceconsejero o Viceconsejera correspondiente.

c) Proponer a los órganos de los que dependan los planes o programas de actuación en las materias atribuidas a su competencia.

d) Dictar los actos administrativos para la ejecución de las funciones que se les asignan por el presente Decreto.

e) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a lo/as Directores/as del Gobierno.

f) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia con la imposición de sanciones tipificadas como leves y graves de acuerdo con la legislación vigente.

1. ATALA
BERRIKUNTZA ETA ENERGIA
SAILBURUORDETZA.

***8. artikulua.***– Berrikuntza eta Energia Sailburuordetza.

1.– 6. artikuluan oro har ezarritako eskumenez gain, honako jardun-arlo hauen zuzendaritza eta koordinazioa dagozkio Berrikuntza eta Energia Sailburuordetzari:

a) Berrikuntza.

b) Informazioaren eta jakintzaren gizartea.

c) Energia.

d) Meategiak.

e) Plangintza eta estrategia.

f) Sailaren zerbitzu orokorrak.

2.– Berrikuntzaren arloan, EAEko industria-sarearen lehiakortasun-mailaren garapena eta hobekuntza sustatzeko jardun guztiak barne hartuko dira. Horiek sustatzeko, produkzio- eta banaketa-prozesuen eragin-kortasuna eta malgutasuna sustatuko da, produktu berriak garatuko dira, produktuak merkatura bideratuko dira, markak kudeatuko dira, antolamendu-sistemak eta kudeaketaren kalitatea hobetuko dira, eta pertsonen lanbide-kualifikazioa, teknikoa eta enpresa-arlokoa bultzatuko da.

3.– Informazioaren eta jakintzaren gizartearen arloan, informazioaren eta jakintzaren gizartea garatzeko eta sustatzeko jardunak barne hartzen dira. Nolanahi ere, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak arlo horretan dituen berariazko koordinazio-eskumenak kontuan hartu behar dira.

4.– Energiaren arloan, energiaren plangintzarekin zein energiaren eremuan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren produkzioari, biltegiratzeari, garraioari, banaketari eta merkaturatzeari lotutako jardueren administrazio-kudeaketarekin zerikusia duten Sailaren jardun guztiak barne hartuko dira.

5.– Meategien arloan, baliabide mineralen bilaketari, ikerketari edo ustiapenari lotutako jarduerekin eta ustiapenen segurtasunaren kontrolarekin zerikusia duten Sailaren jardun guztiak barne hartuko dira.

6.– Plangintzaren eta estrategiaren arloak planak eta azterketak lantzeari eta horien jarraipena egiteari eta, bereziki, klusterren politika lantzeari eta garatzeari lotutako jardun guztiak barne hartzen ditu.

7.– Zerbitzu Orokorren arloan, Sailaren barne-kudeaketari lotutako jardun guztiak barne hartuko dira.

SECCIÓN 1.ª
DE LA VICECONSEJERÍA DE
INNOVACIÓN Y ENERGÍA

***Artículo 8.***– Viceconsejería de Innovación y Energía.

1.– Corresponde a la Viceconsejería de Innovación y Energía, además de las competencias que, con carácter general, se establecen en el artículo 6, la dirección y coordinación de las siguientes áreas de actuación:

a) Innovación.

b) Sociedad de la Información y del Conocimiento.

c) Energía.

d) Minas.

e) Planificación y Estrategia.

f) Servicios Generales del Departamento.

2.– En el área Innovación se incluirán todas las actuaciones encaminadas a promover el desarrollo y mejora del nivel de competitividad del tejido industrial vasco, mediante el fomento de la eficiencia y flexibilidad de los procesos de producción y distribución, el desarrollo de nuevos productos, la orientación de los productos al mercado, la gestión de marcas y la mejora de los sistemas de organización y la calidad en la gestión, así como la cualificación profesional, técnica y empresarial de las personas.

3.– En el área de Sociedad de la Información y del Conocimiento se incluyen las actuaciones dirigidas al desarrollo y promoción de la Sociedad de la Información y del Conocimiento, todo ello sin perjuicio de las competencias de coordinación específicas que tiene la Vicepresidencia del Gobierno en esta materia.

4.– El área de Energía englobará todas las actuaciones del Departamento relativas tanto a la planificación energética como a la gestión administrativa de las actividades de producción, almacenamiento, transporte, distribución y comercialización de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito energético.

5.– En el área de Minas se incluirán todas las actuaciones del Departamento relativas a las actividades de exploración, investigación o explotación de recursos minerales, así como al control de la seguridad de las explotaciones.

6.– El área de Planificación y Estrategia engloba todas las actuaciones relacionadas con la elaboración y seguimiento de planes, estudios y elaboración de política y, en especial, el desarrollo de la política de clusters.

7.– En el área de Servicios Generales se incluirán todas las actuaciones referidas a la gestión interna del Departamento.

8.– Berrikuntza eta Energia sailburuordeak Industria, Merkataritza eta Turismo Saila ordezkatuko du Estatuko Administrazioak energiaren, meategien eta berrikuntzaren arloan sustatutako organoetan eta/edo batzordeetan.

9.– Berrikuntza eta Energia Sailburuordetzaren mende daude, zuzenean eta hierarkikoki, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza, Energia eta Meategien Zuzendaritza, Plangintza eta Estrategia Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

10.– Berrikuntza eta Energia sailburuordeak bere gain hartuko ditu Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearekin koordinatzeko funtzioak, berrikuntzaren eta teknologiaren arloek bat egiten duten eremuan.

11.– Berrikuntza eta Energia sailburuordea da Sailaren kontratazio-organoa, eta kontratuen ondoriozko gastua baimentzea dagokio, Dekretu honen 12. artikuluko 4. puntuan ezarritakoaren kasuan izan ezik.

12.– Berrikuntza eta Energia sailburuordeak erreklamazioak ebatziko ditu eta uraren, energiaren, garraioen eta telekomunikazioen sektoreetan kontratuak egiteko prozedurei buruzko abenduaren 30eko 48/1998 Legearen 51. artikuluan ezarritako gainerako neurriak erabakiko ditu, Lege horren aplikazio-eremuan barne hartu beharreko kontratazioei eta ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 2. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitako kontratuei dagokienez, hots, Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía (EEE/EVE) zuzenbide pribatuko erakunde publikoarenak eta haren mendeko sozietate publikoenak, zein «Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial» (ISEB/SPRI) sozietate publikoarenak eta haren mendeko sozietate publikoenak.

13.– «Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía» (EEE/EVE) zuzenbide pribatuko erakunde publikoarekiko eta «Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial» (ISEB/SPRI) sozietate publikoarekiko harremanak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako erakundeak direnez gero, Berrikuntza eta Energia Sailburuordetzaren bitartez bideratuko dira. Ildo horretan, Sailburuordetzak indarrean dagoen araudian aurreikusitako koordinazioko, ikuskapeneko eta kontroleko funtzioak beteko ditu, funtzio horiek Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuordeari edo beste organo bati berariaz esleituta daudenean izan ezik.

8.– El Viceconsejero o Viceconsejera de Innovación y Energía representará al Departamento de Industria, Comercio y Turismo en los órganos y/o comisiones promovidas por la Administración del Estado en materia de Energía, Minas e Innovación.

9.– De la Viceconsejería de Innovación y Energía dependen directa y jerárquicamente la Dirección de Innovación y Sociedad de la Información, la Dirección de Energía y Minas, la Dirección de Planificación y Estrategia y la Dirección de Servicios Generales.

10.– El Viceconsejero o Viceconsejero de Innovación y Energía asumirá las funciones de coordinación con el Viceconsejero o Viceconsejera de Tecnología y Desarrollo Industrial en el ámbito de confluencia de las áreas de Innovación y Tecnología.

11.– El Viceconsejero o Viceconsejera de Innovación y Energía será el órgano de contratación del Departamento, correspondiéndole la autorización del gasto derivado de los mismos, salvo lo establecido en el punto 4 del artículo 12 de este Decreto.

12.– El Viceconsejero o Viceconsejera de Innovación y Energía resolverá las reclamaciones y acordará el resto de medidas que establece el artículo 51 de la Ley 48/1998, de 30 de diciembre, sobre procedimientos de contratación en los sectores del agua, la energía, los transportes y las telecomunicaciones, en relación a las contrataciones que deban incluirse en el ámbito de aplicación de dicha Ley, y en relación con los contratos a que se refiere el apartado 1 del artículo 2 del texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio, tanto del Ente Público de Derecho Privado «Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía» (EEE/EVE) y de las sociedades públicas de él dependientes, como de la Sociedad Pública «Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial» (ISEB/SPRI) y de las sociedades públicas dependientes de la misma.

13.– Las relaciones con el Ente Público de Derecho Privado «Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía» (EEE/EVE) y de la Sociedad Pública «Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial» (ISEB/SPRI), en cuanto Entes Institucionales adscritos al Departamento de Industria, Comercio y Turismo, se instrumentarán a través de la Viceconsejería de Innovación y Energía, quien ejercerá las funciones de coordinación, supervisión y control que respecto a los mismos se prevean en la normativa en vigor, salvo que las mismas estén atribuidas expresamente a la Consejera de Industria, Comercio y Turismo o a otro órgano.

*9. artikulua.*– Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza.

7. artikuluan oro har ezarritakoez gain, kalitatearen, berrikuntzaren eta informazio-gizartearen arloko honako funtzio hauek dagozkio Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzari:

a) Berrikuntzaren, kudeaketaren kalitatearen eta giza baliabideen arloko Sailaren jardun-programak lantzea eta gauzatzea.

b) Enpresetan eta erakundeetan bikaintasunaren eta erabateko kalitatearen printzipioaren hedapena bultzatzea.

c) Teknologia Zuzendaritzarekin lankidetzan, Berrikuntzaren Euskal Agentziaren sorkuntza sustatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema koordinatzeko eta bultzatzeko tresna gisa.

d) Kudeaketaren kalitate eta berrikuntzaren arloan dagoeneko ezarrita dauden programen jarraipena ebaluatzea eta gauzatzea, Zuzendaritzaren eskumenen eremuan.

e) Industriako enpresak normalizatzeko eta egiaztatzeko jarduerak sustatzea.

f) Berrikuntzaren arloan sentsibilizazioko, zabalkundeko eta prestakuntzako planak egitea.

g) Giza baliabideen eta baliabide horien erabilera zabaltzearen eremuan enpresa-kudeaketa hobetzeko tresna berriak diseinatzera bideratutako jardunetarako azterketak eta proposamenak lantzea.

h) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean barne hartutako berrikuntza-eragileekiko eta berrikuntzaren arloko erakunde arteko topaketa-foroekiko harremanetarako organoa izatea.

i) Lehiakortasun-planak aurrera eramatea, berrikuntzari, kudeaketaren hobekuntzari eta pertsonen prestakuntzari dagokienez.

j) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko organo eskudunen arteko harremanetarako organoa izatea, etengabeko prestakuntzaren arloko jardunak eta enpresek lanbide-trebakuntzaren inguruan egindako eskariaren eta prestakuntza-eskaintzaren arteko integrazio egokia era koordinatuan bultzatzeko.

k) Euskal gizartean informazioaren eta jakintzaren gizartea garatzeko neurriak sustatzea. Nolanahi ere, administrazio eta gobernu elektronikoen eremuan Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzari dagozkion eskumenak kontuan hartu behar dira.

*Artículo 9.*– Dirección de Innovación y Sociedad de la Información.

Corresponden a la Dirección de Innovación y Sociedad de la Información, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones en el ámbito del área de Calidad, Innovación y Sociedad de la Información:

a) Elaborar y ejecutar programas de actuación del Departamento en materia de innovación, calidad en la gestión y personas.

b) Impulsar la extensión del principio de la excelencia y la calidad total en empresas y organizaciones.

c) Promover la creación de la Agencia Vasca de la Innovación, como instrumento de coordinación e impulso del Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, en colaboración con la Dirección de Tecnología.

d) Evaluar y realizar el seguimiento de programas ya implantados en el área de Calidad e Innovación en la Gestión, dentro del ámbito de sus competencias.

e) Promover las actividades de normalización y certificación de empresas industriales.

f) Elaborar Planes de sensibilización, divulgación y formación en materia de innovación.

g) Elaborar estudios y propuestas de actuaciones encaminadas a diseñar nuevos instrumentos para la mejora de la gestión empresarial en el ámbito de los recursos humanos y la difusión de su utilización.

